Informazio-batzordeak aurrez aurre nahiz urrutitik eratu, deitu eta egin ahal izango dira. Kasu horretan, udaleko organo eskudunek erabaki beharko dute zein kasutan egin daitezkeen urrutiko bilkurak, eta, era berean, administrazio elektronikoaren printzipioak betetzen direla bermatzeko bitarteko eta zehaztapen teknikoak onartu beharko dituzte.

Informazio-batzordeek urrutitik egiten dituzten bilkuretan, batzordeetako kideak leku desberdinetan egon ahal izango dira; kasu horretan, baliabide elektronikoen bitartez (halakotzat jotzen dira baliabide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak) bermatu beharko da kideen edo haien ordezkoen identitatea, haien adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea, bai eta kideen arteko elkarreragina eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskuragarri egongo direla. Besteak beste, baliabide elektroniko baliodunak izango dira, esaterako, posta elektronikoa,

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

audiokonfe- rentziak eta bideokonferentziak.

3. Bilkuretako ikus-entzunezko aktak.

1. Informazio Batzordeak, teknikoki posible denean, bideoan grabatuko dira hasieratik amaierara, esku-hartzeak oso- osorik euskarri bideografikoan jasoak izan daitezen. Grabazioa eta euskarri elektronikoko dokumentuak dagozkien fitxategi elektronikoen osotasuna eta benetakotasuna bermatzeko moduan gorde beharko dira, bai eta zinegotziek fitxategi horietarako sarbidea izango dutela bermatzeko moduan ere.

2. Grabaketaren ondoriozko fitxategia, grabazioaren benetakotasunari eta osotasunari buruz batzordeko Idazkaritzak emandako ziurtagiria eta bilkurako dokumentu gisa erabiltzen diren euskarri elektronikoko dokumentu guztiak bilkuraren aktarekin batera aurkeztu ahal izango dira, eztabaiden puntu nagusiak aktan jaso beharrik gabe.

3. Honako elementu hauek, gutxienez, osatzen dituzte ikus- entzunezko aktak:
   - Akta laburra: Dokumentu elektronikoa, honako hauek jasotzen dituena: lekua, eguna eta ordutegia, bertaratutako zinegotzien zerrenda eta bertaratu ez direnena, saioaren izaera eta lehen edo bigarren deialdian egiten den, jorratutako gaien izenburua (bozketak eta emaitzak adierazita), hartutako erabakien xedapen- zatia, eta, hala badagokio, aipatu beharreko gorabeherak.
   - Ikus-entzunezko dokumentua edo bideoa: Saioan edo bileran gertatutako guztia bideoan grabatua, audioa eta irudiak jasota. Dokumentu horrek parte-hartzaile bakoitzaren esku-hartzeen literaltasuna jasotzen du, eta dokumentu elektronikoan txertatzen da, estekatuta.

Irura, 2025ko xxxxx xxa.—Gorka Murua Macuso, alkatea.

4. **Ondorioa**
   - Batzordeak egokitzat jotzen du proposatutako erregelamendua onartzea, aurreikusitako legezko izapideei jarraikiz; izan ere, aplikatu beharreko esparru juridikoa betetzen du, eta udal-kudeaketaren segurtasuna eta efizientzia indartzen ditu bitarteko elektronikoen bidez.
   - Osoko bilkurak onartzeko gomendioa eta aurretiazko entzunaldi publikorako igorpena.

Batzordeko Idazkaria
Irantzu Arrizabalaga Gainza And.

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

**BOZKETA.-**

**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra (Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea (Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz (Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde (Eh bildu). Gorka Sagarna Larrañaga (EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga (EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia (EAJ/PNV).

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

**7.- IRURAKO UDALERRIAN, DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA IZAN ETA TRATAMENDUA BEHAR DUTEN PERTSONA FAMILI EDO INTERESATUEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN ALDAKETA PROPOSAMENA.**

Alkateak hartu du hitza eta adireazi du aldaketak mendekotasun prestazioa kontutan ez hartzea dirulaguntza jasotzeko garaian eta beste aldetik prestazio portzentaiak aldatzea.

**GIZARTE ZER BITZUETAKO BATZORDEAREN PROPOSAMENA**

| AKTA ZENB. | ORRIALDEA | DATA | GAIA |
|---|---|---|---|
| 2025/05 | 1/1 | 2025-09-17 | UDAL DIRULAGUNTZA – DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA DUTENEI |

**Gizarte zerbitzuetako batzordeak, 2025eko irailaren 17an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:**

4.- DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA IZAN ETA TRATAMENDUA BEHAR DUTENENTZEKO UDAL DIRU-LAGUNTZA EGOKITZEA.

*.- DESGAITASUNA /MENDEKOTASUNA DUTEN ETA TRATAMENDUA BEHAR DUTENENTZAKO UDAL DIRULAGUNTZA – 2026rako aldaketa .

Aurreko batzordean aipatu bezala, zenbait egokitzapen egiteko onuragarritasuna aipatu da. Batzordeak, GAOn 2020ko irailaren 28an kaleratutako ordenantzan ondorengo aldaketak egitea proposatu du:

- ✓ FIZPE prestazioa kontuan ez hartzea
- ✓ Prestazioaren protzentaiak eta taldeak aldatzea.

Hau da:

3. art. – Diru-laguntzak zehazteko irizpideak.
2. Dirulaguntza ondorengo irizpideen arabera aztertuko da:
   - HH, LH eta DBHN dauden haurren familiek, DBE jasotzaleak badira edo kopuru horretako diru-sarrerak badizute, hileko tratamenduaren %70 jasoko dute diru-laguntza moduan.
   - HH, LH eta DBHn dauden haurren familiek DBE baino gehiagoko diru-sarrerak badituzte, %35 jasoko dute diru-laguntza moduan.
   - Ezgaitasuna edo mendekotasuna (2. Artikuluaren 4. Puntuan zehaztutakoa) duten 18 urtez gorako pertsonek edo beren familiek DBE jasotzaileak badira edo kopuru horretako kopuru horretako diru-sarrerak badituzte, hileko tratamendu gastuaren % 50 jasoko dute diru-laguntza moduan.
   - Ezgaitasuna edo mendekotasuna (2. Artikuluaren 4. Puntuan zehaztutakoa) duten 18 urtez gorako pertsonek edo beren familiek DBE baino gehiagoko diru-sarrerak badituzte %25 jasoko dute diru-laguntza moduan.

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

**BOZKETA.-**
**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra (Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea (Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz (Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde (Eh bildu).

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Gorka Sagarna Larrañaga (EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga (EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia (EAJ/PNV).

**8.- IRURAKO UDALERRIAN, HAURRAK IKASTETXEETAN, HH, LH EDO DBHN MATRIKULATUTA DITUZTEN FAMILIEI, IRTEERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN ALDAKETA PROPOSAMENA.**

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du aldaketak dirusarrerak bermatzeko errentaren kasua aldatzen da.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

# GIZARTE ZER BITZUETAKO BATZORDEAREN PROPOSAMENA

| AKTA ZENB. | ORRIALDEA | DATA | GAIA |
|---|---|---|---|
| 2025/05 | 1/1 | 2025-09-17 | UDAL DIRULAGUNTZA – ESKOLA IRTEERETARAKO |

**Gizarte zerbitzuetako batzordeak, 2025eko irailaren 17an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:**

5.- ESKOLA IRTEERA GASTUETARAKO UDAL DIRU-LAGUNTZA EGOKITZEA

Aurreko batzordean aipatu bezala, zenbait egokitzapen egiteko onuragarritasuna aipatu da.
Batzordeak, GAOn 2020ko ekainaren 29an kaleratutako ordenantzan ondorengo aldaketak egitea proposatu du:

- ✓ Egungo DBE prestazio kopuruaren sailkapenera egokitzea
- ✓ Aurretik egindako gastuaren arabera

Hau da:

3. art. – Diru-laguntzak zehazteko irizpideak

…

- Familia unitatearen hileo diru-sarrerei, etxebizitza gastutik gehienez 550 e kenduta, kideen araberako DBE kopurua izango da.

…

4. art. – Eskaerak, dokumentazioa eta aurkezteko epea

1.- Diru-laguntza jasotzeko eskubidea dutela uste duten familiek, udaletxean aurkeztu beharko dute eskaera, ondorengo agiriekin batera:

- Eskatzailearen NAN, AIZ edota indarrean dagoen beste edozein nortasun agiri.
- Familia liburua
- Ikaslea, Irurako edo inguruko ikastetxe batean matrikulatua dagoela adierazten duen agiria.
- **Ikasturtean zehar izandako irteera gastuen fakturak edo ordain-agiriak.**
- Eskatzailearen kontu korrontea eta titulartasuna adierazten duen bankuko agiria.
- Familia unitatearen diru-sarrera guztiak zuriko beharko dira: nomina, agiri ebazpen … eta zinpeko aitorpena

…

9. art. – Diru-laguntzaren ordainketa

Alkatetzaren Dekretu bidez dagokion erabakia hartu ostean, ordainketa gauzatuko da.

…

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

**BOZKETA.-**
**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra (Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea (Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz (Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde (Eh bildu). Gorka Sagarna Larrañaga (EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga (EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia (EAJ/PNV).

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

**9.- 2025KOIR0002 LIZITAZIOA HUTSIK UZTEAREN ONARPEN PROPOSAMENA.**

**2025KOIR0002 LIZITAZIOA HUTSK UZTEAREN PROPOSAMENA**

2025eko uztailaren 24ean Kontratazioa Publikoa Euskadin plataforman argiratu zen "Irurako San Migel plazako irisgarritasuna eraberritzea eta oinezkoentzako egokitzea plataforma bakarrean, argiteria publikoko, ur hornidurako eta saneamenduko sareak egokitu eta hobetzea, eta hiri-altzariak berritzeko" kontratazio espedientea.

2025eko irailaren 19ra arte zeukaten enpresa interesatuak izen emate epea. 2025eko irailaren 22an A sobrearen irekiera egin zen eta ez zen enpresarik aurkeztu.

Beraz, Kontratazio Organoa den Udal Batza Osoari lizitazioa hutsik uztea onar dezan proposatzen zaio:

**GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKO IREKIERA-AKTA /**

**ACTA APERTURA SOBRE DE CAPACIDAD Y SOLVENCIA**

**Espediente zkia / Nº expediente:** 2025KOIR0002

**Botere adjudikatzailea / Poder adjudicador:** Irurako Udala / Ayuntamiento de Irura

**Erakunde sustatzailea / Entidad impulsora:** Irurako Udala / Ayuntamiento de Irura

**Kontratuaren xedea / Objeto del contrato:** Irurako San Migel plazako irisgarritasuna eraberritzea eta oinezkoentzako egokitzea plataforma bakarrean, argiteria publikoko, ur hornidurako eta saneamenduko sareak egokitu eta hobetzea, eta hiri-altzariak berritzeko. / Proyecto de reforma de accesibilidad y adecuación peatonal a plataforma única en plaza San Migel de Irura, adecuación y mejora de las redes de alumbrado público, abastecimiento de agua y saneamiento y renovación de mobiliario urbano.

**Kontratu mota / Tipo de contrato:** Obrak / Obras

**Prozedura / Procedimiento:** Irekia / Abierto

**Tokia / Lugar:** Irura / Irura

**Data / Fecha:** 2025/09/22 / 22/09/2025

**Ordua / Hora:** 08:30

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

**Beste batzuk / Otros**

- Irantzu Arrizabalaga Gainza

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Irurako udala

| |
|---|
| - **Gurutze Astiasaran Soto**<br>- **Gorka Murua Macuso**<br>- **Iñaki Arregi Garitano** |

| | |
|---|---|
| Goiburuan aipatutako toki, data eta orduan, erreferentziazko espedienteari dagokion administrazio-agiriak (Gaitasuna eta kaudimena gutun-azala) kalifikatzeko, kontratazio mahaia eratzen da aipatutako moduan | En el lugar, fecha y hora arriba indicados, se constituye la Mesa de Contratación en la forma precedentemente señalada, para proceder a la apertura y calificación de la documentación administrativa del sobre de Capacidad y Solvencia correspondiente al expediente de referencia |

| | |
|---|---|
| Bilera, arautzen duten xedapenak irakurtzen hasten da, baita eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren emaniko ziurtagiria, zeinaren bitartez, aurkeztutako eskaintza ekonomikoa aurkeztu duten enpresak honako hauek izan dira:<br><br>EZ DA ENPRESARIK AURKEZTU<br><br>Horrenbestez, lizitazioa hutsik geratu da.<br><br>Erabakia kontratazio-organoari jakinaraziko zaio. | Se inicia el acto dando lectura a las disposiciones que lo regulan, así como al certificado extendido en el que consta que, en el momento de finalizar el plazo de presentación de proposiciones, se habían presentado las empresas indicadas a continuación:<br><br>NO SE HA PRESENTADO NINGUNA EMPRESA<br><br>Por lo tanto, se declara la licitación desierta.<br><br>Se comunicará la decisión al órgano de contratación. |

| | |
|---|---|
| Beste aztergairik ez dagoenez, honako hau ekitaldia amaitu da, adierazitako lekua eta datak. | No habiendo más asuntos que tratar, se da por finalizado el acto, en el lugar y fechas señalados. |

| | |
|---|---|
| Irura, 2025ko Irailean 22 | En Irura a 22 de septiembre de 2025 |

**SINATZAILEAK / FIRMANTES:**

2025eko irailaren 24ean

Udaleko Idazkaria

Irantzu Arrizabalaga Gainza

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

**BOZKETA.-**
**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra (Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea (Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz (Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde (Eh bildu). Gorka Sagarna Larrañaga (EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga (EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia (EAJ/PNV).

## 10.- IRURAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak

### GIZARTE ZER BITZUETAKO BATZORDEAREN PROPOSAMENA

| AKTA ZENB. | ORRIALDEA | DATA | GAIA |
|---|---|---|---|
| 2025/05 | 1/1 | 2025-09-17 | HITZARMENA: FARMALIZALARIEN ELKARGOA/UDALA |

**Gizarte zerbitzuetako batzordeak, 2025eko irailaren 17an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:**

8.- EUDEL FARMAZIALARIEN HITZARMENA

2025HITZ0001 – EUDEKek Farmazialarien elkargoarekin sinatutako hitzarmenaren berri eman eta udala programa horretan sartu eta Farmazialarien elkargoarekin hitzarmena sinatzea eskatzen du.

Sinatu beharreko hitzarmen horrek bi atal ditu:
. botiken erabilpena optimizatzea gizarte zerbitzuetako zerbitzu/prestazioen erabiltzaileekin
. arazo soziosanitarioak dituzten herritaren detekzioa herriko farmazialarien aldetik.

Ikusirk:
- ✓ Irurako udalak 2023ko otsailaren 23an sinatu zuela botiken erabilpen egokiaren hitzarmena eta oraindik indarrean dago.
- ✓ Udal gizarte langilea eta herriko farmazialariak dagoeneko badutela koordinazioa eta prest daudela hitzarmen honetan adierazten den formatoaren arabera egitea.

Batzordeak honako hau erabaki du:

Udalbatzaren osoko bilkurari Farmazialarien Elkargoaren eta Irurako udalaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea proposatzea. Eta egun indarrean dagoen 2023ko otsailaren 23ko hitzarmena baliogabetzea.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

# XXXX UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA

## 1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak adierazten du Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Prestazio Orokorretako bat dela bizikidetza-zerbitzuak edo -programak eskaintzea interesdunaren etxean bertan egiten diren jardueren aurrean, eta 29. artikuluan ezartzen du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak herritarrak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara iristeko lehen gune gisa jarduten duten diziplina anitzeko unitateak direla, eta horien funtzio nagusia gizarte-zerbitzuen arloan arreta jaso dezaketen gizarte-premiak detektatzea eta horiei arreta ematea dela, dagokien lurralde-eremuan, Gizarte Zerbitzuen Sistema horretako instantzietarako sarbidea koordinatuz eta kudeatuz.

Farmazialarien Elkargo Ofizialaren helburuetako bat da farmazia-lanbidearen jarduna herritarren osasuna sustatzera eta erabiltzaileentzako farmazia-sorospen egokia lortzera bideratuta egon dadin zaintzea. Horretarako, gainerako erakunde publiko eta pribatuekin beharrezko diren lankidetza-tresnak ezarriko ditu.

XXXXX(e)ko Udal Gizarte Zerbitzuek eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialak badakite zer-nolako arazo dauden sendagaiak eta, oro har, farmazia-zerbitzuak eskuratzeko, bai eta pertsona jakin batzuek sendagaiak maneiatzeko eta kontrolatzeko zer-nolako zailtasunak dituzten ere, autonomia pertsonala mugatua dutelako eta beste arrazoi batzuengatik. Horregatik, farmazia-zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak eta sendagaiak zentzuz erabiltzeko mugak gainditzeko helburuari begira, ados daude arazo horiek konpontzen saiatzeko lankidetza ezartzearekin, horri esker programako parte-hartzaileek sendagaiak zentzuz erabiltzeko modua hobetzeko.

LEHENENGOA.- PARTE-HARTZAILEAK

XXXXX(e)ko Udal Txit Gorenaren izenean, Alkatea ____________________ eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren ordezkari moduan __________________, Presidente gisa.

Parte-hartzaileek, beren karguen arabera eta bakoitzari emandako ahalmenak erabiliz, hitzarmen hau egiteko gaitasuna eta eskumena aitortzen diote elkarri.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

BIGARRENA.- HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da __________(e)ko Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren arteko lankidetza-esparru bat ezartzea. Bi programaren bidez, bi erakunde horiek pertsonen bizi-kalitatea eta beharrezko arreta-mailak hobetzeko eta igotzeko lan egiten dute, eta bat egiten dute helburu horrekin:

1. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuek artatutako pertsonen medikazioaren erabilera hobetzeko programa: medikazioaren erabilera hobetzeko programa bat inplementatzeko. Programa horren helburu nagusia da ____________(e)ko Udaleko etxez etxeko laguntza-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen medikamentuen erabilera optimizatzea, haien segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzen laguntzeko (I. ERANSKINA).
2. 2. Arazo soziosanitarioak dituzten egoerak detektatzeko programa: Farmazien saretik premia soziosanitarioak detektatzeko sistemak indartuz, Gizarte Zerbitzuek artatu ditzaketen egoeren aurrean (II. ERANSKINA).

Nolanahi ere, indarrean dagoen lege-esparruak eta esparru teknikoak parte hartzen duen alde bakoitzari esleitzen dizkion eskumenak eta funtzioak errespetatzetik abiatzen dira agiri honetan ezarritako jarraibideak eta irizpideak.

HIRUGARRENA.- LANKIDETZARAKO BESTE BIDE BATZUK

Beste lankidetza-bide batzuk ere ireki ahal izango dira, lehen deskribatutako programetan parte hartzen duten langileen prestakuntza hobetzeko egokitzat jotzen diren loturak ezartzeko. Halaber, beste proiektu berritzaile batzuk diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, egokitzat jotzen diren ikerketak egin ahal izango dira, informazioa trukatu ahal izango da, eta, oro har, erakunde sinatzaileek esleituta dituzten helburuak hobeto lortzera bideratutako jarduera guztiak egin ahal izango dira.

LAUGARRENA.- SUSTATZAILEEI BURUZ

Bai XXXX(e)ko Udalak bai Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialak konpromisoa hartzen dute programa horien betearazle gisa elkar aitortzeko, egiten den edozein erreferentzia publikoren aurrean.

BOSGARRENA.- HITZARMENA EBALUATZEKO BATZORDEA

Hitzarmen honen ondoriozko jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Batzorde Tekniko Paritarioa eratuko da, aldeen ordezkariek osatua.

Batzorde horrek hitzarmenak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko behar diren ekintzak gauzatuko ditu, eta egindako jardueren memoria idatziko du.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Irurako udala

SEIGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

Hitzarmen hau iraungitzeko arrazoiak honako hauek izan daitezke:

1. Edozein estipulazio ez betetzeagatik suntsiaraztea, bidezkoak diren kalte-ordain edo ordainen ekintzei kalterik egin gabe.
2. Osasun Sailaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Elkargoen arteko lankidetza-hitzarmena, etxez etxeko laguntza-zerbitzuek artatutako pertsonen medikazioaren erabilera hobetzekoa, 2022ko apirilaren 19koa, iraungitzea.
3. Alde sinatzaileak ados jartzea.
4. Bi aldeetako batek uko egitea, 2 hilabete lehenago jakinarazita.
5. Aurreikusitako epea eta luzapenak ez betetzea.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Lankidetza Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta lau urteko indarraldia izango du. Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo azkentzea.

ZORTZIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Gizarte-zerbitzuetan eta farmazia komunitarioan erabiltzen diren datu pertsonalak bereziki sentikortzat jotzen dira, eta babesik handiena dute zabaltzeari eta irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko aukerei dagokienez.

Ahal den guztietan, pertsonaren baimen libre eta borondatezkoa lortuko da, profesionalek beren egoerari buruzko informazioa trukatu dezaten. Profesionalen artean ematen den informazioak ahalik eta txikiena, beharrezkoa eta egokia izan behar du, atzemandako egoeraren arabera.

A) ALDEEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Jakinarazten da harremanetarako datu pertsonalak eta aldeen ordezkarienak tratatu egingo direla alde bakoitzak lotzen dituen harreman juridikoak dirauen bitartean, akordio hau kudeatu eta ebazteko, harremana eta komunikazioa mantentzeko eta ezarritako harremana kudeatzeko. Tratamendu hori aldeen arteko harreman juridikoan oinarritzen da.

Ez da aurreikusten datu horiek hirugarrenei lagatzea, ezta nazioarteko datu-transferentziak egitea ere.

Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako eskubideak akordio hau sinatzen duten aldeen helbide sozialetan baliatu ahal izango dira.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Irurako udala

B) DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAN ERANTZUNKIDETASUNA IZATEKO AKORDIOA

Hitzarmen hau sinatzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta tratamenduaren arduradun diren heinean, ordezkari horiek behartuta daude tratamenduaren erantzunkide gisa jarduten duten ordezkaritzan.

Horregatik, Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorraren (aurrerantzean, DBEO) 26. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean, DBLO) 29. artikulua betez, aldeek beren arteko harremana zehazten dute, akordio honen 3. eranskinean ezarritako klausulen arabera.

BEDERATZIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Berariaz araututa ez dagoen guztian, Esparru Hitzarmen hau indarrean dagoen legeriaren arabera arautu eta interpretatuko da, eta Gipuzkoako Epaitegi eta Auzitegien eskumenaren mende jarriko dira Aldeak, haren inguruan sor daitezkeen eztabaidak konpontzeko, eta legokiekeen beste edozein eskumeni uko egingo diote.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Irurako udala

# I. ERANSKINA

## ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUEK ETA GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATZEN DITUZTEN PERTSONEN MEDIKAZIOAREN ERABILERA HOBETZEKO PROGRAMA

### SARRERA

**LEHENENGOA.-** Programaren helburua

- Pazienteei beren medikamentuak identifikatzen laguntzea eta medikamentu horiek emateko jarraibideak ezagutzea.
- Pazienteari agindutako sendagaiak bere medikuak ezarritako jarraibideen arabera jasotzen laguntzea.
- Tratamenduarenganako atxikidura hobetzen laguntzea (tratamendua betetzea).
- Sendagaiekin zerikusia duten arazoak identifikatzea, hala nola bikoiztasunak eta ez-betetzeak, eta sendagaien erabilerari lotutako emaitza negatiboak prebenitzen edo saihesten laguntzea.
- Etxeko laguntzaileen eta/edo zaintzaileen lana erraztea, sendagaiak eskuratzearekin, kontserbatzearekin eta administratzearekin lotutako aldeetan.
- Etxez etxeko laguntzaileei eta/edo zaintzaileei prestakuntza eskaintzea.

**BIGARRENA.-** Onuradunak

1. Medikamentuak erabiltzeko programa honen onuradun izan daitezke beren etxeetan bizi diren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak artatzen dituen pertsonak edo familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomiko bat jasotzen dutenak. Halaber, onuradunak izan daitezke hainbat arrazoirengatik gizarte-harrerako zentroetan dauden pertsonak, beren ezaugarri soziosanitarioak direla-eta hitzarmen honen onurak jaso ditzaketenak.

2. Pertsona horiek medikamentuen erabilera hobetzeko programan sartzea borondatezkoa da, eta berekin dakar justifikatzea etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren edo familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomiko baten onuradunak direla edo gizarte-harrerako zentroetan bizi direla, dagokion erakundearen zigiluaren bidez eta programaren funtzionamendu-baldintzen onarpen sinatuaren bidez. Baldintza horiek 1. agiri gisa ageri den baimen informatuaren agirian daude jasota.

3. Onuradunek edozein unetan utz dezakete programa, eta horretarako baldintza bakarra da horren berri ematea, bai prestazio hori jasotzen duten farmazia-bulegoan, bai gizarte-zerbitzuetan.

**HIRUGARRENA.-** Parte hartzen duten farmaziak

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

1. Parte hartzen duten farmaziak Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialak berariaz horretarako akreditatutakoak dira.

2. Akreditazioa lortzeko, farmazia-bulegoak, gutxienez, dagokion prestakuntza-ikastaro teoriko-praktikoa egin duen farmazialari bat izan behar du, eta haren titularrak programari atxikitzeko konpromisoa sinatu behar du, 2. agiri gisa ageri dena, eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialera bidali.

3. Atxikitze-konpromiso hori borondatez sinatzen duten farmaziak behartuta daude programa Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren prozeduran ezarritakoaren arabera garatzera eta zerbitzua zuzenean eskaintzera, eta espresuki debekatuta dago zerbitzua eskuordetzea edo azpikontratatzea. Halaber, farmaziak nahitaez salatu eta jakinarazi beharko du ildo horretan egin dakiekeen edozein azpikontratazio-eskaintza.

**LAUGARRENA.**- Prozedura

1. Udal gizarte-zerbitzuek programa horren berri emango diete programa horren onuradun izan daitezkeen pertsonei, eta programaren funtzionamendurako baldintzen berri emango diete.

2. Programa honetan parte hartu nahi duen onuradunak edo bere legezko ordezkariak Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialak akreditatutako farmazia bat aukeratuko du.

3. Udal gizarte-zerbitzuek bete eta zigilatu egingo dute 1. agiri gisa agertzen den programan/ baimen informatuan sartzeko agiria, eta pertsona onuradunari edo haren zaintzaileari emango diote, harekin batera aukeratutako farmaziara joan dadin.

   Onuradunak, haren zaintzaileak edo etxez etxeko laguntzaileak hautatutako farmazian entregatuko du programa/baimen informatuan sartzeko agiria, zigilatua eta sinatua.

4. Farmaziak Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialari jakinaraziko dizkio programaren onuradun diren pertsonen sarrerak eta bajak, eta dagokion programan sartzeko agiriaren/ baimen informatuaren kopia bidaliko du.

5. Baimen-agiri informatua sinatu ondoren, hautatutako farmaziak elkarrizketa egingo dio onuradunari edo, hala badagokio, haren zaintzaileari edo etxeko laguntzaileari, programa behar bezala garatzeko behar diren datuak lortzeko eta erregistratzeko, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren prozeduraren arabera. Datu horiek mediku arduradunarekin kontrastatuko dira.

6. Era berean, farmazialariak onuradunari ematen zaion tratamendua berrikusiko du eta jarraipena egingo dio, sendagaiekin zerikusia duten arazoak sortzen diren detektatzeko, hala nola interakzioak, bikoiztasunak, dosifikazioak edo administrazio-tarte okerrak. Erantzuna baiezkoa bada, hori zuzentzeko zer egin behar den zehazteko, agindua eman duen medikuarekin harremanetan jarri behar da, gorabehera motaren eta esku hartzeko proposamenen berri emateko. Proposamenak Jarraipen Batzordeak adostutako sailkapenaren arabera identifikatuko dira.

7. Une horretatik aurrera, farmaziak onuradunaren preskripzio aktiboak eskuratzen dituen bakoitzean, haiek dispentsatzeari ekingo dio, legeak aurreikusten duen moduan, osasun-txartelaren bidez. Dispentsatu ondoren, zaintzapean gordeko ditu dispentsatutako sendagaiak, dosifikazio-sistema pertsonalizatuak adostutako epean prestatzeko. Sistema

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Irurako udala

horiek aldian behin prestatzen eta ematen jarraituko dute. Dosifikazio-sistema pertsonalizatuekin batera, tratamendu bakoitzaren hasieran, pazienteari edo haren arduradunari emango zaizkio haietan egokitutako sendagai guztien prospektuak, eta sendagaiak kontserbatzeko baldintzei buruzko informazioa emango zaio.

8. Dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatzeko aldia amaitu ondoren edo tratamenduan aldaketaren bat gertatzen denean, onuradunak farmazian emango ditu eskura dituenak, edozein egoeratan daudela ere, berriak jaso aurretik.

9. Hilero, farmaziak programaren ebaluazio-parametro eta -adierazleei buruzko informazioa bidaliko dio Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialari. Horretarako, onuradun bakoitzak datuak biltzeko formulario bat beteko du, 3. agirian aurreikusitako ereduarekin bat datorrena, eta telematikoki bidaliko da, berariazko informazio-sistema baten bidez.

**BOSGARRENA.-** XXXXX(e)ko Udalaren betebeharrak

1. Lankidetza-hitzarmen honen xedeak eta helburuak lortzen laguntzea.
2. Hautatutako erabiltzaileek edo, hala badagokio, haien zaintzaileek edo etxeko laguntzaileek akreditatutako farmazia libreki aukeratzen dutela bermatzea, medikazioaren erabilera optimizatzeko zerbitzua emateko.
3. Programa egiteko behar den informazioa Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren esku jartzea, datu pertsonalak babesteko araudiak ezarritako baldintzen arabera.

**SEIGARRENA.-** Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren betebeharrak

1. Lankidetza-hitzarmen honen xedeak eta helburuak lortzen laguntzea.
2. Akreditatutako farmazien parte-hartzea bermatzea.
3. Programari buruzko prestakuntza-ikastaroak antolatzea, farmazientzat eta etxez etxeko laguntzako langileentzat.
4. Programa egiteko behar den informazioa XXXXXX(e)ko Udalaren esku jartzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Programaren finantzaketa

Programa gauzatzeko kostuak parte hartzen duten farmazia akreditatuek ordainduko dituzte.

Osasun Sailak laguntza ematen du hitzarmen honen xede den programan parte hartzen duten farmazia egiaztatuei onuradun bakoitzari egindako zerbitzuengatiko ordainketan, Osasun Sailak eta Euskal Autonomia Erkidegoko farmazia-elkargoek 2022ko apirilaren 19an sinatutako hitzarmenean xedatutakoaren arabera.

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

**BOZKETA.-**
**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra (Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea (Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz (Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde (Eh bildu). Gorka Sagarna Larrañaga (EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga (EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia (EAJ/PNV).

## 11.- IRURAKO UDALA ETA DEUSTOKO UNIBERTSITATEAREN ARTEKO HEZKUNTZAKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, proposamena jaso zutenean Gizarte Langileak aldeko iritzia eman duela eta horregatik hitzarmena sinatzen dela eta Udalari ez diola

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

inolako kosturik erangingo.

## GIZARTE ZER BITZUETAKO BATZORDEAREN PROPOSAMENA

| AKTA ZENB. | ORRIALDEA | DATA | GAIA |
|---|---|---|---|
| 2025/05 | 1/1 | 2025-09-17 | HITZARMENA: DEUSTUKO UNIBR. / UDALA |

**Gizarte zerbitzuetako batzordeak, 2025eko irailaren 17an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:**

7.- DEUSTUKO GIZARTE ETA GIZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKASLE BATEN PRAKTIKALDIRAKO ESKAERA

2025GIZA0024 - Deustuko gizarte eta giza zientzien fakultateak ikasle batek iruarko gizarte zerbitzuetan praktikak egiteko eskaera egin du.

Batzordeak, Ikusirik:

- Deustuko gizarte eta giza zientzien fakultateak egindako eskaera.
- Erakundeok ere profesionalen prestakuntza prozesuan ekarpen bat egin dezakegula eta onuragarria dela
- Gizarte langileak prest daudela ikaslea hartzeko eta horrek suposatzen duen denbora eta azpiegitura errazteko
- Bi erakundeen arteko hitzarmen bat sinatu behar dela

Honako hau erabaki du:
Udalbatzaren osoko bilkurari Deustuko unibertsitatearen eta Irurako udalaren arteko hezkuntzako lankidetza-hitzarmena sinatzea proposatzea.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Irurako udala

Sarrera / Entrada

# CONVENIO DE COOPERACIÓN EDUCATIVA ENTRE LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO Y AYUNTAMIENTO DE IRURA

## REUNIDOS

De una parte, la UNIVERSIDAD DE DEUSTO (en adelante ***DEUSTO***), con CIF R-4868004E y domicilio en Avenida de las Universidades 24, 48007 - Bilbao, representada en este acto, por delegación del Rector, por Doña Ane Ferran Zubillaga, en calidad de Decana de la Facultad de Ciencias Sociales y Humanas.

Y de otra, AYUNTAMIENTO DE IRURA (en adelante ***AYUNTAMIENTO DE IRURA***), con CIF P2005000A y domicilio social en San Miguel plaza, 20271 - Irura, representada en este acto por Gorka Murua Macuso, en calidad de Alcalde, facultado para celebrar el presente Convenio en virtud de las atribuciones y capacidad que le confiere su cargo.

## EXPONEN

Que al amparo del Real Decreto 592/2014, de 11 de julio (BOE del 30), por el que se regulan las prácticas académicas externas de los estudiantes universitarios y del Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre (BOUD del 17 de febrero de 2017), del Consejo Académico, por el que se aprueba la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto ambas partes desean suscribir un Convenio de Cooperación Educativa con el fin de que los alumnos de la Facultad de Ciencias Sociales y Humanas de la Universidad de Deusto, puedan realizar prácticas académicas externas en ***AYUNTAMIENTO DE IRURA.***

# DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN ETA IRURAKO UDALA ENTITATEAREN ARTEKO HEZKUNTZAKO LANKIDETZA-HITZARMENA

## BILDUAK

Alde batetik, DEUSTUKO UNIBERTSITATEA (aurrerantzean, ***DEUSTU***), R-4868004E IFK zenbakia duena (helbidea: Unibertsitate etorbidea 24, 48007 - Bilbao); ekitaldi honetan, errektoreak eskuordetuta, Ane Ferran Zubillaga izango da ordezkari, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanoa den aldetik.

Eta bestetik, IRURAKO UDALA (aurrerantzean, ***IRURAKO UDALA***), P2005000A IFK zenbakia duena (helbide soziala: San Miguel plaza, 20271 - Irura); ekitaldi honetan, Gorka Murua Macuso izango da ordezkari, Alkatea den aldetik, betetzen duen karguak ematen dizkion eskumen eta ahalmenak kontuan hartuta, hitzarmen hau sinatzeko eskuduna.

## ADIERAZI DUTE

Uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak (30eko BOE), unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituenak, eta abenduaren 13ko 2/2016 Erabakiak (2017ko otsailaren 17ko DUAO), Deustuko Unibertsitateko Kontseilu Akademikoarenak, Deustuko Unibertsitateko lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauak onartzen dituenak xedatutakoaren babesean, alde biek sinatu nahi dutela hezkuntzako lankidetza hitzarmena, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko ikasleek kanpoko praktika akademikoak egin ahal izateko ***IRURAKO UDALA*** entitatean.

ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

**Irurako udala**

## ESTIPULACIONES

### *PRIMERA.- OBJETIVO DE LAS PRÁCTICAS*

Los fines u objetivos generales de las prácticas reguladas en este Convenio son los siguientes: que los estudiantes apliquen y complementen los conocimientos adquiridos en su formación académica, adquieran competencias que les preparen para el ejercicio de actividades profesionales y mejoren su empleabilidad y capacidad de emprendimiento.

### *SEGUNDA.- NATURALEZA FORMATIVA DE LAS PRÁCTICAS*

Las prácticas académicas objeto de este Convenio son de carácter formativo, por lo que de su realización no se derivarán, en ningún caso, obligaciones propias de una relación laboral, ni su contenido podrá dar lugar a la sustitución de la prestación laboral propia de puestos de trabajo. Asimismo, y en el caso de que al término de los estudios el estudiante se incorporase a la plantilla de la entidad colaboradora, el tiempo de las prácticas no se computará a efectos de antigüedad ni eximirá del período de prueba salvo que en el oportuno convenio colectivo aplicable estuviera expresamente estipulado algo distinto.

La suscripción por parte de ***AYUNTAMIENTO DE IRURA*** del presente Convenio en ningún caso supondrá la adquisición de más compromisos que los estipulados en el mismo. ***AYUNTAMIENTO DE IRURA*** podrá, si lo entiende oportuno, abonar una cantidad dineraria al estudiante que en ningún caso tendrá consideración salarial sino de bolsa de ayuda.

Corresponderá a la Universidad de Deusto cumplir las obligaciones en materia de cotización a la Seguridad Social de los estudiantes en prácticas no remuneradas previstas en la Disposición adicional

## ESTIPULAZIOAK

### *LEHENENGOA.- PRAKTIKEN HELBURUA*

Hitzarmen honetan araututako praktiken xede eta helburu orokorrak honako hauek dira: ikasleek beren prestakuntza akademikoan eskuratu dituzten jakintzak aplikatu eta osatzea, jarduera profesionalak gauzatzeko prestatzen dituzten gaitasunak eskuratzea eta beren enplegagarritasuna eta ekintzailetza-gaitasuna hobetzea.

### *BIGARRENA.- PRAKTIKEN PRESTAKUNTZA-IZAERA*

Hitzarmen honen helburu diren praktika akademikoak prestakuntza hobetzeko direnez, ez da sortuko lan-harremanetako betebeharrik, eta haien edukiak ez du ekarriko lanpostuetako lan-prestazioaren ordezkapenik. Halaber, baldin eta ikaslea entitate laguntzaileko langileen plantillan sartzen bada ikasketak bukatzean, praktiken denbora ez da aintzat hartuko antzinakotasunean, eta ez du libratuko proba-alditik, baldin eta lekuan lekuko hitzarmen kolektibo aplikagarrian ez badago ezarrita bestelakorik.

***IRURAKO UDALA*** entitateak hitzarmen hau sinatzeak ez du ekarriko hitzarmenean bertan jasotako konpromisoak ez direnak hartu behar dituenik. ***IRURAKO UDALA*** entitateak, hala nahi badu, ikasleari diru-kopuru bat ordaindu ahalko dio, baina ez da, inolaz ere, soldatatzat hartuko, laguntza-poltsatzat baizik.

Deustuko Unibertsitateak bete beharko ditu ordaindu gabeko praktiketako ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioaren arloko betebeharrak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen



ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

Irurako udala

quincuagésima segunda del Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren berrogeita hamabigarren xedapen gehigarrian ezarriak.

***TERCERA.- MODALIDADES DE PRÁCTICAS***

Las prácticas podrán ser curriculares o extracurriculares. Las curriculares se configuran como actividades académicas integrantes del Plan de Estudios de que se trate. Las prácticas extracurriculares son aquellas que los estudiantes podrán realizar con carácter voluntario durante su periodo de formación y que, aun teniendo los mismos fines que las prácticas curriculares, no forman parte del correspondiente Plan de Estudios. En el Anexo que se firme para cada práctica concreta se especificará su carácter, de acuerdo con la normativa de ***DEUSTO***.

***HIRUGARRENA.- PRAKTIKEN MODALITATEAK***

Praktikak curriculumekoak edo curriculumaz kanpokoak izan ahalko dira. Curriculumekoak dagokion ikasketa-planeko jarduera akademikotzat hartzen dira. Bestalde, ikasleek curriculumaz kanpoko praktikak egin ditzakete euren borondatez prestakuntza-aldian, baina ikasketa-planean sartuta egon gabe, nahiz eta curriculumeko praktiken helburu bera izan. Praktika zehatz bakoitzerako sinatzen den eranskinean, izaera zehaztuko da, ***DEUSTU***ren araudian zehaztutakoari jarraiki.

***CUARTA.- DURACIÓN Y HORARIOS DE REALIZACIÓN DE LAS PRÁCTICAS***

Las prácticas curriculares tendrán la duración que establezca el Plan de Estudios correspondiente.

Las prácticas extracurriculares tendrán una duración preferentemente no superior al cincuenta por ciento del curso académico.

Los horarios de realización de las prácticas se establecerán de acuerdo con las características de las mismas y las disponibilidades de ***AYUNTAMIENTO DE IRURA***. En todo caso, serán compatibles con la actividad académica, formativa y de representación y participación desarrollada por el estudiante en la universidad.

***LAUGARRENA.- PRAKTIKEN IRAUPENA ETA ORDUTEGIA***

Ikasketa-planak ezarritakoa iraungo dute curriculumeko praktikek.

Curriculumaz kanpoko praktikek ez dute izango ikasturtearen iraupen osoaren ehuneko berrogeita hamarretik gorako iraupena.

Praktikak egiteko ordutegia praktiken ezaugarriak eta ***IRURAKO UDALA*** entitatearen aukerak kontuan hartuta ezarriko da. Dena den, ordutegia bateragarria izango da ikasleak unibertsitatean duen jarduerarekin (ikasteko, prestatzeko eta ordezkatzeko eta parte hartzeko jarduerekin).

***QUINTA.- PROYECTO FORMATIVO***

El Anexo que se firme para el desarrollo de cada una de las prácticas deberá fijar los objetivos educativos y las actividades a desarrollar. Los objetivos se establecerán considerando las competencias básicas,

***BOSGARRENA.- PRESTAKUNTZA PROIEKTUA***

Praktika bakoitza garatzeko sinatzen den eranskinak hezkuntzako helburuak eta garatu beharreko jarduerak ezarri beharko ditu. Ikasleak hartu behar dituen oinarrizko gaitasunak, orokorrak edota bereziak kontuan



ESKUf1b642d3-c9c2-4986-b77b-68d46a1a5f6c

